



**USE 2018**



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO  
EBALUAZIOA

2018ko UZTAILA

FISIKA

EVALUACIÓN PARA EL  
ACCESO A LA UNIVERSIDAD

JULIO 2018

FÍSICA

**Azterketa honek bi aukera ditu. Haietako bati erantzun behar diozu.**

**Ez ahaztu azterketako orrialde bakoitzean kodea jartzea.**

- Aukera bakoitzak 2 ariketa eta 2 galdera ditu.
- Ariketa bakoitzak 3 puntu balio du. Atal guztiak balio berdina dute. Atal bakoitzaren emaitzak, zuzena zein okerra izan, ez du izango inolako eraginik beste atalako emaitzen balioespenean.
- Galdera bakoitzak, gehienez, 2 puntu balio du.
- Kalkulagailu zientifikoa erabil daiteke.

**Este examen tiene dos opciones. Debes contestar a una de ellas.**

**No olvides incluir el código en cada una de las hojas de examen.**

- Cada opción consta de 2 problemas y 2 cuestiones.
- Cada problema tiene un valor de 3 puntos. Todos los apartados tienen igual valor. El resultado, correcto o incorrecto, de cada apartado no influirá en la valoración de los restantes.
- Cada cuestión se valora en un máximo de 2 puntos.
- Puede utilizarse una calculadora científica.



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO  
EBALUAZIOA

2018ko UZTAILA

FISIKA

EVALUACIÓN PARA EL  
ACCESO A LA UNIVERSIDAD

JULIO 2018

FÍSICA

## A AUKERA

**P1.-** Bi karga finko,  $q_1$  eta  $q_2$ , bata bestetik 6 m-ra daude, eta 0,025 N-eko aldarapen-indarra eragiten diote elkarri.  $q_1$  karga ardatz-koordenatuen jatorrian dago, eta  $q_2$  OX ardatzaren alde positiboan.

- Zer balio du bi karga horiek sortutako eremu elektrikoak bi kargak lotzen dituen segmentuaren erdiko puntuaren? (modulua, norabidea eta noranzkoa adierazi behar dituzu)
- Kalkulatu bi kargek osaturiko sistemaren potentzial elektrikoa bi kargak lotzen dituen segmentuaren erdiko puntuaren.
- Zer lan egin behar da  $+10^5$  C-ko karga bat ( $q_3$ ) infinitutik aurreko bi kargak lotzen dituen zuzenkiaren erdiko punturaino eramateko?

**Datuak:**  $q_1 = +2 \cdot 10^{-5}$  C;  $k = 9 \cdot 10^9$  N·m<sup>2</sup>·C<sup>-2</sup>

**P2.-** Sei metro luze den soka baten muturretako bat ( $x = 0$ ) gora eta behera higitzen ari da 60 Hz-eko maiztasuneko hididura harmoniko simplearekin. Sortutako uhina 0,5 segundoan heltzen da sokaren beste muturrera.

- Idatzi uhinaren ekuazio orokorra, jakinik uhinaren amplitudea  $A = 0,03$  m dela eta hasierako fasea  $\phi_0 = \pi/2$  rad dela.
- Kalkulatu zer distantziatarra dauden sokako bi puntu baldin eta haien arteko fase-diferentzia  $2\pi$  rad bada.
- Kalkulatu uhinaren gehieneko bibrazio-abiadura.

**C1.-** Keplerren legeak. Enuntziatuak. Orbita zirkularretarako 3. legea deduzitzea grabitazioaren legetik abiatuta.

**C2.-** Erradioaktibitate naturalaren fenomenoa deskribatzea. Desintegrazio erradioaktiboa. Alfa, beta eta gamma partikulen igorpena. Soddy eta Fajans-en legeak. Adibideak.



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO  
EBALUAZIOA

2018ko UZTAILA

FISIKA

EVALUACIÓN PARA EL  
ACCESO A LA UNIVERSIDAD

JULIO 2018

FÍSICA

## B AUKERA

**P1.-** Planeta jakin baten gainazaletik espazio-zunda bat jaurti da bertikalki gorantz 20 km/s-ko abiaduran.

- Zer balio du planeta horretan ihes-abiadurak? Lortuko al du espazio-zundak planetaren grabitazio-erakarpenetik ihes egitea?
- Jaurtitze-unean espazio-zundaren energia zinetikoa  $10^{12}$  J dela jakinik, kalkulatu zer balio duen zundaren masak eta zer erakarpen-indar eragiten dion planetak une horretan.
- Planetaren gainazaletik neurtuta 600 km-ko altueran dagoela, kalkulatu zer balio duten zundaren pisuak eta abiadurak.

**Datuak:** planetaren masa:  $M = 2,5 \cdot 10^{25}$  kg; planetaren erradioa:  $R = 6.371$  km; grabitazio unibertsalaren konstantea:  $G = 6,67 \cdot 10^{-11} \text{ N} \cdot \text{m}^2 \cdot \text{kg}^{-2}$

**P2.-** Objektu bat behatzeko, leiar konbergente bat erabili da; horretarako, objektua leiarraren zentrotik  $4 \cdot f$ -ko distantziara kokatu da ( $f$  = leiarraren foku-distantzia).

- Egin ezazu izpi-diagrama objektuaren irudia nola sortzen den adierazteko.
- Zer ezaugarri ditu irudiak? Adierazi ea objektua baino handiagoa edo txikiagoa den, erreala edo birtuala den, eta zuzen edo alderantziz dagoen.
- Errepika itzazu aurreko bi atalak, objektua leiarraren zentrotik  $f/2$ -ko distantziara kokatzen dela jakinik.

**C1.-** Uhin geldikorrik. Definizioa eta adibideak.

**C2.-** Eremu magnetiko uniforme baten barnean eragindako indar magnetikoa:

- higitzen ari den karga puntual baten gainean (adibidea: ibilbidea kargaren abiadura eremuarekiko perpendikularra denean).
- korronte elektrikoaren eroale lineal baten gainean.



## A AUKERA


### P1.- EBAZPENA

- a) Lehendabizi,  $q_2$  kargaren balioa kalkulatuko dugu. Elkarri eragindako indarra aldarapenekoa dela kontuan hartuta,  $q_2$  kargak positiboa izan behar du.

Coulomben legea aplikatuz:  $F = K \cdot \frac{q_1 \cdot q_2}{d^2}$

Balioak ordeztuz:  $0,025 = 9 \cdot 10^9 \cdot \frac{2 \cdot 10^{-5} \cdot q_2}{6^2} \Rightarrow q_2 = +5 \cdot 10^{-6} C$

$$\vec{E}_{gutzira} = \vec{E}_1 + \vec{E}_2$$



$$E_1 = 9 \cdot 10^9 \cdot \frac{2 \cdot 10^{-5}}{3^2} = 2 \cdot 10^4 \text{ N/C} \Rightarrow \vec{E}_1 = 2 \cdot 10^4 \cdot \vec{i} \text{ N/C}$$

$$E_2 = 9 \cdot 10^9 \cdot \frac{5 \cdot 10^{-6}}{3^2} = 5 \cdot 10^3 \text{ N/C} = 0,5 \cdot 10^4 \text{ N/C} \Rightarrow \vec{E}_2 = -0,5 \cdot 10^4 \cdot \vec{i} \text{ N/C}$$

$$\vec{E}_{gutzira} = \vec{E}_1 + \vec{E}_2 = 1,5 \cdot 10^4 \cdot \vec{i} \text{ N/C}$$

b)  $V_{gutzira} = V_1 + V_2$

$$V_{gutzira} = K \cdot \frac{q_1}{r} + K \cdot \frac{q_2}{r} \Rightarrow V_{gutzira} = 9 \cdot 10^9 \cdot \frac{2 \cdot 10^{-5}}{3} + 9 \cdot 10^9 \cdot \frac{5 \cdot 10^{-6}}{3} = 7,5 \cdot 10^4 \text{ V}$$

c)  $W = q_3 \cdot (V_\infty - V_P) = 10^{-5} \cdot (0 - 7,5 \cdot 10^4) = -0,75 \text{ J}$

Karga positiboa izanik, ez da aske higitzen eremuaren eraginez; haren gainean lan egiten duen kanpo-eragile bat behar da.



**P2.- EBAZPENA:**

a) Uhinaren ekuazio orokorra:

$$y(x,t) = A \cdot \sin(\omega \cdot t - k \cdot x + \varphi_0)$$

$$\omega = 2\pi \cdot f = 2\pi \cdot 60 = 120\pi \text{ rad/s}$$

$$v = \frac{s}{t} = \frac{6}{0,5} = 12 \text{ m/s} \Rightarrow k = \frac{2\pi}{\lambda} = \frac{2\pi \cdot f}{v} = \frac{2\pi \cdot 60}{12} = 10 \pi \text{ m}^{-1}$$

$$y(x,t) = 0,03 \cdot \sin(120\pi \cdot t - 10\pi \cdot x + \pi/2)$$

b) puntuak  $x_1$  eta  $x_2$  izanik:

$$(120\pi \cdot t - 10\pi \cdot x_1 + \pi/2) - (120\pi \cdot t - 10\pi \cdot x_2 + \pi/2) = 2\pi$$

$$10\pi \cdot x_1 - 10\pi \cdot x_2 = 2\pi \Rightarrow x_1 - x_2 = 0,2 \text{ m}$$

c)  $v = \frac{dy}{dt} = 0,03 \cdot 120\pi \cdot \cos(120\pi \cdot t - 10\pi \cdot x + \pi/2)$

Abiadurak baliorik handiena hartzeko,  $\cos\left(120\pi \cdot t - 10\pi \cdot x + \frac{\pi}{2}\right) = \pm 1$

$$v_{max} = 0,03 \cdot 120\pi \cdot (\pm 1) = \pm 6\pi \text{ m/s}$$



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO  
EBALUAZIOA

2018ko UZTAILA

FISIKA

EVALUACIÓN PARA EL  
ACCESO A LA UNIVERSIDAD

JULIO 2018

FÍSICA

## B AUKERA

### P1.- EBAZPENA:

a) Ihes-abiadura:  $v = \sqrt{\frac{2 \cdot G \cdot M}{r}}$

Datuak ordezktuz:  $v = \sqrt{\frac{2 \cdot 6,67 \cdot 10^{-11} \cdot 2,5 \cdot 10^{25}}{6371 \cdot 10^3}} = 22879,4 \frac{m}{s} = 22,88 \frac{km}{s}$

Zundak ez du lortuko planetaren erakarpenetik ihes egitea

b)  $E_z = \frac{m \cdot v^2}{2} \Rightarrow 10^{12} = \frac{m \cdot (20.000)^2}{2} \Rightarrow m = 5000 \text{ kg}$

Erakarpen-indarra:  $F = G \cdot \frac{M \cdot m}{d^2} \Rightarrow F = 6,67 \cdot 10^{-11} \cdot \frac{2,5 \cdot 10^{25} \cdot 5000}{(6371 \cdot 10^3)^2} \Rightarrow F = 2,05 \cdot 10^5 N$

c)  $P = G \cdot \frac{M \cdot m}{d^2} \Rightarrow P = 6,67 \cdot 10^{-11} \cdot \frac{2,5 \cdot 10^{25} \cdot 5000}{(6371 \cdot 10^3 + 600 \cdot 10^3)^2} \Rightarrow P = 1,72 \cdot 10^5 N$

Abiadura kalkulatzeko, energiaren kontserbazio-printzipioa aplikatuko dugu:

$$(E_z + E_p)_{\text{gainazalean}} = (E_c + E_p)_{600 \text{ km}}$$

$$10^{12} + \left( -G \cdot \frac{M \cdot m}{d} \right) = \frac{m \cdot v^2}{2} + \left( -G \cdot \frac{M \cdot m}{d_{600 \text{ km}}} \right)$$


$$10^{12} + \left( -6,67 \cdot 10^{-11} \cdot \frac{2,5 \cdot 10^{25} \cdot 5000}{6371 \cdot 10^3} \right) = \frac{5000 \cdot v^2}{2} + \left( -6,67 \cdot 10^{-11} \cdot \frac{2,5 \cdot 10^{25} \cdot 5000}{(6371 + 600) \cdot 10^3} \right)$$

$$\mathbf{v = 18.847 \text{ m/s} = 18,85 \text{ km/s}}$$



**P2.- EBAZPENA**

a) Izpi-diagrama



b) Irudiaren ezaugariak:

- Tamaina: objektua baino txikiagoa
- Izaera: erreala
- Kokapena: alderantzizkatua

c)	<p>A ray diagram for a diverging lens. A horizontal blue line represents the optical axis. A point labeled 'f' is marked on the axis to the right of the lens. A dashed blue line representing a ray parallel to the axis enters from the left and passes through the lens, diverging as it moves to the right. Two solid red arrows point away from the lens, representing virtual images.</p>	Irudiaren ezaugariak: <ul style="list-style-type: none"><li>• Tamaina: objektua baino handiagoa</li><li>• Izaera: birtuala</li><li>• Kokapena: zuzena</li></ul>
----	---	---